



Hezkuntza eta Kirol Fakultatea



Kulturartekotasun Hezkuntzako

MINORRA

4.MAILA



Gida honetan, Hezkuntza eta Kirol Fakultatean laugarren mailako ikasleek gauza dezaketen minorrari buruzko informazioa ematen da eta, batez ere, *Proiektu Espezifikoan Kudeaketa* ikasgaiaren egin beharreko lanaren zehaztasunak azaltzen dira. Izan ere, ikasgai honek barne hartzen ditu Minorreko ikasgai desberdineko ekarpenak lanketa praktikoa bat aurrera eramateko.

1. SARRERA

XXI mendeko bigarren hamarkada honetako mundua estatuei, banakoei eta kulturei hainbeste eragiten dien globalizazioaren ondorioa da. Prozesu konplexu eta poliedriko honek era sakon eta bizian bultzatzen du mundu mailako produktuen trukea, ondareen partekatzea eta banakoen joan-etorria.

Globalizazio neoliberalak, ostera, homogeneizazioa bilatzen du eredu hegemonikoaren inguruan eta bere eragina politikan, ekonomian, kulturen eta gizartean ikusten da. Proiektu bateratzaile honek erronka egiten dio XXI. mendean bizirik jarraitzen dituzten mila kultura desberdinei. Aipaturiko erronka hau hezurmamitu egiten da bereziki giza migrazioen kasuan. Izan ere, mundu mailako arazo bihurtu da eta berdinean eragiten die nazio-estatuari zein kultura, talde ala banakoei. Migrazioen arrazoiaren artean gatazkak, ingurumen hondamendiak edo bizitza hobetzeko asmoz sorturiko abagune ekonomiak ditugu. Beraz, migrazioek estatuei kultur dibertsitatearen erronka planteatzen die dagoeneko asko kultur askotarikoak bihurtu direlako.

Era berean, aniztasun honek estatu sistemari eta, batez ere, Europako Batasunaren sistema demokratikoaren oinarrian dauden balioei, legezketasunaren defentsari eta giza eskubideei eragiten die. Are gehiago, erronkak krisia eragin duela ikus daiteke hainbat kasuetan. Adibide moduan hortxe dugu Brexit delakoaren kasua, eskuin muturraren gorakada unea, buruzagitzaren politikoen aldaketa eta gobernu berrien agerpena Austriari eta, batez ere, Italiari. Aipaturiko kasuetan etorkinenganako politiken gogortzea eragin du lurrikara politiko-instituzional honek. Sona handiko beste kasu bat errefuxiatu uholde erraldoi-erraldoia sortu duen Ukrainiako gerla dugu.

Munduko kulturen balio praktikoa ere erreferentzia egin nahi diogu Minor honetan Garapen Iraunkorreko Helburuekin eta 2020-2030 Agendarekin bat eginez. 2015ean UNESCOk proposaturiko Hiritartasun Demokratikorako Hezkuntza Globala marko teoriko moduan hartuz, Garapen Iraunkorraren Helburuak osatuz UPV-EHUren 17+1 helburua den kultura sustatuko dugu. Era honetan, Garapen Iraunkorra erdiesteko eta munduko ekosistemak babesteko etnoaniztasunak egiten duen ekarpena lehenetsiko dugu (hizkuntza aniztasuna zein ohiko jakinduriaren papera). Halaber, gure Minorrean eskaintzen diren gaiak 1 (pobrezia desagertzea), 3 (osasuna eta ongizatea), 4 (kalitatezko oinarriko hezkuntza), 10 (desberdintasunak murriztea), 11 (hiri eta komunitate jasangarriak) eta 16 (bakea, justizia eta erakunde sendoak) helburuekin dute lotura zuzena.

Errealitate global honen ondoan, tokian tokiko errealitate bat agertzen da Euskal Autonomia Erkidegoan. Bertan kulturartekotasuna erdietsi asmoz bizikidetzatza dugu helburu. Berau erdiesteko, eta kultura ugartasunaren onarpenetik abiatuz, errespetuaren, enpatia, berdintasunaren alde eta bizikidetzatza, zein arrazakeriaren eta xenofobiaren kontra egiten da. Beti ere, balio demokratikoei zein giza eskubideetan.



oinarrituriko justizia sozialari erreparatuz.

2. HELBURUAK

Minor honen helburu nagusia da irakasleei hasierako formazio bat eskaintzea modu aktiboan kulturartekotasuna eraikitzeke gai izan daitezen hezkuntza, gizarte nahiz kultura eremuetan. Kymlickak (2004) dioen moduan, helburua muga etnikoen gainetik elkarrekiko konfiantza, elkar ulertzea, elkartasuna eta balio komuna oinarri dituen proiektu sendo eta trinkoa eraikitzea da. Honen harira, etorkizuneko irakasleak gai izango dira kulturarteko hezkuntza demokratikoa gauzatzeko. Ahalegin honetan, estatu, nazio eta herrien eta kulturen artean dagoen elkarmenpekotasuna gertakizun positibo moduan ulertu behar da. Era berean, bakoitzaren auto identifikazio kritikoa mundu mailako politikan sustatuko da.

Kymlickaren (2004) proposamenari jarraituz tokian-tokiko kulturartekotasun baten alde egingo dugu:


- 1) Daukagun ugaritasun kulturala onartuz eta ezagutuz.
- 2) Aitortuz talde bakoitzak egindako ekarpenak (hizkuntza eta kulturari bereziki erreparatuz)
- 3) Parekotasun soziala babestuz. Tokian-tokiko kulturartekotasunetik abiatuz nahi dugu kulturartekotasun kosmopolita erdietsi.

Beraz, gai izan beharko genuke gure erosotasun maila gainditzeko, enpatia garatzeko, estereotipo eta aurreiritziak kuestionatzeko, gure muga pertsonala handitzeko eta gero eta globalizatuago dagoen munduan kulturen arteko elkarrengiketara gauzatzeko.

Minor honetan, elkarbizitza eta kulturartekotasuna sustatzeko behar beharrezkoak diren gaitasunak landu nahi dira. Alde batetik, besteari entzun eta aditu, besteekin enpatia izatea eta besteak onartu. Bestetik, iritziak, jarrerak, gertaerak kuestionatu eta gatazkak kudeatzen ikasi behar da. Honen bitartez, irakaskuntza-ikaskuntza esparruan elkarbizitzarako espazio eta mezu berriak sortu ahal izango dira.

3. MINORREKO IRAKASLE TALDEA

Kulturarteko Hezkuntzarako Baliabideak eta estrategia didaktikoak	Igone Palacios igone.palacios@ehu.eus
Fundamentos Teóricos de la Educación Intercultural	Aritza Saenz del Castillo aritzsaenzdelcastillo@ehu.eus Ainhoa Ezeiza ainhoa.ezeiza@ehu.eus
Kulturartekotasunaren Komunitate Dimentsioa	Joseba Arregi josebainaki.arregi@ehu.eus
Kulturartekotasuna Eskolan	Irati Leon irati.leon@ehu.eus



4. MINORKULT JARDUNALDIAK

Minor honetan aurkituko dituzuen berezitasunen artean aipamen berezia eskainiko diogu jardunaldien antolaketari. Urtero, azaroan zehar, egun batzuetako iraupena duten jardunaldiak burutzen dira aurtengoak 11. edizioa markatzen duelarik. Bertan kulturartekotasunaren idealari jarraitzen dion hezkuntza eta formakuntza lotzen dituen eremu instituzional-akademikoa gauzatzen da non Europa eta munduko aditu-arituak euren esperientzia eta kezak partekatzen dituzten. Bertan Eusko Jaurilaritzak, Aldundiak, Udaletxetako teknikariek, Gobernu Kanpoko Erakunde zein eskola eta elkarte ezberdinek hartu dute parte. Esperientzia honek zuen formakuntzan jauzi handia egiteko eta sakontzeko aukera eskaintzen du eta gure minorraren zutabe inportantea da.

Bere garrantzia ezin da zuen partaidetzatik bereizi. Aipaturiko aktore sozialen artean ezinbestekoa delako immigranteen erakundeen ahotsa eta partaidetza babestea eta sustatzea. Hau gauzatzeko zuen laguntza beharko da eta ezinbestekoa izango da taldeka antolatuz jardunaldi hauetara etorkinen erakunderen bat ekartzea. Eginbehar hori Dimentsio Komunitarioaren zutabe inportantea izango eta balioztatuko da. Honetaz gaindi, gure hizlari gonbidatuei merezi duten harrera ona ematea eta eztabaida eta ikuspuntuen zorrotasuna eta hobekuntza garatu ahal izateko zuen **presentzia eta parte hartzea ezinbestekoa da, bai etengabeko ebaluazioa zein amaierako ebaluazioa burutzen duzuelarik. Honek isla izango du gai bakoitzeko ebaluazioetan irakasle bakoitzak erabakitzen duen moduan.** Beraz, zuen iritzi, kezka, ekarpen nahiz proposamenak aineratu arazorik gabe. Ekimen honenbidez gure helburuak erdiesteko beharrezkoa den ikuspegi kritikoa eta auto konfiantza garatuko dituzue.

5. IKASGAI BAKOITZAREN DESKRIBAPEN LABURRA

Minor honetan, partaidetzak balio handia du; hori dela eta, irakasgaietan proposatzen diren debateetan, hausnarketetan, talde-lanetan eta gainerako eginkizunetan jarrera aktiboa eta adeitsua erakutsi behar da. Ikasgelan partaidetza aktiboa ez izateak ebaluazioan eta kalifikazioan isla izango du.

FUNDAMENTOS DE LA EDUCACIÓN INTERCULTURAL (DPTO. DE DIDÁCTICA DE LAS CIENCIAS SOCIALES/DPTO. DE DIDÁCTICA DE LA LENGUA Y LA LITERATURA)

Esta asignatura es impartida por dos departamentos. Las primeras siete semanas correrán a cargo del Departamento de Didáctica de las Ciencias Sociales que iniciará el curso tratando conceptos clave para la comprensión de los fenómenos interculturales (cultura, diversidad cultural, identidad, relaciones culturales simétricas-asimétricas, asimilación, aculturación, subordinación, coexistencia, convivencia, integración, inclusión...). Posteriormente, se realizará un acercamiento a los procesos interculturales desde el prisma de los Derechos Humanos Universales para generar una opinión formada sobre los logros, los retos, las dificultades... que se generan en la interacción cultural y que se manifiestan recurrentemente en enconadas polémicas que afectan al mundo educativo. Estas discusiones serán la base para introducir un cambio de paradigma que posibilite concebir la interculturalidad como un valor positivo con sus incontables ventajas frente a una sociedad uniforme y etnocentrista. El siguiente capítulo lo dedicaremos a examinar detenidamente el Curriculum Educativo vigente en el País Vasco y su



tratamiento a la diversidad cultural. Así, analizaremos los objetivos y contenidos de la Competencia Social y Cívica relacionados y su materialización en diferentes recursos didácticos (libros de texto, TIC,...). Por último, acometeremos un proceso de descolonización del currículo desde las Ciencias Sociales, que posibilitará superar visiones y actitudes eurocéntricas, xenófobas, racistas... muy estereotipadas, resaltando las aportaciones de otras culturas al avance de la Humanidad.

El resto del curso lo impartirá el Departamento de Didáctica de la Lengua y la Literatura. En este caso, se propone una inmersión en el aula, lugar donde se dan las interacciones entre docentes y alumnado, donde se trabaja con materiales concretos y donde se desarrolla el curriculum académico y el curriculum oculto. Para ello, se trabajarán cuestiones como la construcción de la identidad, las percepciones que el profesorado tiene sobre otras culturas, el tratamiento que los libros de texto dan a estas culturas y se estudiarán diferentes propuestas para un curriculum más inclusivo. Así, nos vamos a centrar en la identidad lingüística y cultural del alumnado, y propondremos un enfoque metodológico innovador que contribuya a la ecología multilingüe y multicultural de nuestras aulas. Asimismo, nos sumergiremos brevemente en los fundamentos de la educación antirracista a través de las tertulias pedagógicas dialógicas y tendremos también oportunidad de trabajar nuestros propios prejuicios y suposiciones para poder iniciar un proceso de deconstrucción.

La asignatura se imparte en castellano.

Competencias:

1. Analizar de forma crítica el significado del término “cultura” en sus distintos usos e intenciones.
2. Conocer los fundamentos deontológicos del quehacer docente para abordar situaciones escolares multiculturales.
3. Comprender y valorar la pluralidad lingüística/cultural como riqueza e instrumento para el aprendizaje y la inclusión social.
4. Comprender y avalorar la dimensión cultural del conocimiento científico, de otro tipo de conocimiento y del curriculum como elemento de inclusión de los alumnos de origen multicultural.

KULTURARTEKOTASUNA ESKOLAN

Ikasgai honetan eskola eremuan kultura aniztasunak dituen zehaztasunak ezagutu eta aztertuko dira. Horrela, eskola baten dimentsio maila ezberdinei arreta jarriz: eskola antolakuntza, ikaskuntza prozesuak, parte-hartzean duten agenteen begiradak, hala nola, ikasleak, familiak, irakasleak-hezitzaileak edo bestelako langileak, dauden baliabideak, gatatzak eta ongizatea.

Gaitasunak

1. Kulturarekiko eta honen eskolan hartzen dituen dimentsioekiko begirada kritiko eta sakona garatzea.
2. Egunon eskola egoerak ezagutzea eta kultura anitzeko testuinguruetan Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako errealitateak ezagutzea eta esku-hartzeko



eremuak identifikatzea.

3. Trebetasun sozialak garatzea, familiak eskolaren arteko harremana indartzea eta lankidetzanaritzeko eta parte-hartzeko erraztasunak sortzea.
4. Gatazken aurrean norberaren leku ezagutu eta kudeaketarako tresnak eskuratzea.
5. Ikastetxeko hezkuntza-testuingurua aztertzea, irakaskuntza-jarduera eta ikasgelako ikaskuntzadiseinatzeko, antolatzeko eta ebaluatzeko.

KULTURARTEKO HEZKUNTZARAKO BALIABIDEAK ETA ESTRATEGIA DIDAKTIKOAK

Ikasgai honetan kulturartekotasuna bultzatzen laguntzeko irakasle trebatua, arduratsua eta erreflexiboa izaten ikasteko hainbat baliabide eta estrategia didaktiko landu eta aztertuko dira. Horretarako, norbanakoen bizipen eta esperientzia praktikoak bultzatuko dira baliabide eta estrategia desberdin batzuk aurrera eramanez eta hauen inguruko hausnarketa eginez.

Gaitasunak

1. Haur eta lehen hezkuntzako kulturartekotasuna bultzatzeko esperientzia berritzaileak ezagutzea eta aplikatzea.
2. Kultura arteko proiektu hezitzaileak garatzea eta ebaluatzea, baliabide eta metodologia didaktiko egokiak erabilia, ikasle guztiek ahalik eta gaitasun gehien lortzeko.
3. Bakarkako lana, lankidetzaz, diziplina, konstantzia, eta pentsatzeko gaitasuna sustatzea, batak bestearen lana aitortzeko, pertsonen garapen emozionala eta integrala sustatuz.
4. Ikasleen parte-hartze aktiboa eta arduratsua sustatzea, eta baita ere ikasgelako eta ikasgelatik kanpoko bizikidetzaz; arazoek eta gatazkek lankidetzan konpontzea lagunduz.
5. Pentsaera kritikoa eta argumentatzeko gaitasunak garatzea, kulturartekotasunaren ikuspuntutik erabaki arduratsuak hartzen laguntzeko eta arazoei konponbideak bilatzen ikasteko.

KULTURA ARTEKO HEZKUNTZARAKO HEZKUNTZA POLITIKAK

Ikasgai honetan jendarteko eta hezkuntza eremuko kultura-aniztasunari erantzuna emateko garai eta testuinguru ezberdinetako politikak ezagutzeko aukera eskaintzen da. Hori gauzatzeko, funtsezkoa izango da herrialde eta estatu ezberdinetako politikak aztertzea, betiere ikasleen gogoeta eta parte-hartzea sustatuz. Gainera, kultura-aniztasuna terminoaren jatorria eta ondorioak eta kultura anitzeko gertakariaren jatorria eta oinarriak landu eta aztertuko dira.

Gaitasunak:

1. Politikak ezagutzea, aztertzea eta balioztatzea, hezkuntza sistemek kultura-aniztasunari erantzuna eman diezaioten une eta testuinguru ezberdinetan.



2. Hezkuntza jardueraren baldintza politikoak eta legegileak ezagutzea eta aztertzea, kultura arteko hezkuntzari dagokionez.
3. Hezkuntza politikak ezagutzea eta aztertzea, hiritar aktiboak eta demokratikoak prestatzeko.
4. Hezkuntza politika berritzaileak ezagutzea eta balioztatzea Lehen Hezkuntzako eta Haur Hezkuntzako kultura-aniztasunari erantzuna emateko.

KULTURARTEKOTASUNAREN KOMUNITATE DIMENTSIOA

Kulturartekotasunaren dimentsio komunitarioan gizabanakotik haratago dauden errealitateak abiapuntu moduan hartu ondoren migratzaileek euren gizarte berrietan moldatze aldera garaturiko esperientziak jorratuko dira. Beste herri batean bizitzeak baditu bere arazoak eta horien artean aipagarriak dira erbestea, herrimina, deserriratzea talka kulturala, neke kulturala eta Ulisesen sindromea, besteak beste. Errealitate horien ondorio txarrak saihestu asmoz gizabanakoekeuren herri eta kultura kideekin batera hainbat estrategia garatu dituzte elkarrekin eta diasporak sortuz. Fenomeno hauek aztergai izango ditugu euskal diasporaren kasuan erabiliz beste diaspora batzuen errealitatearekin konparatzeko.

Bigarren atal batean, estatu-nazio eta etorkinen arteko harremani eta, batez ere, beldurrei erreparatuko zaie. Horretarako euskal diasporaren kasua erabiliko da pentsamendu historiakoa eta hiritartasun demokratikoa hezkuntzar globalare garatzeko, enpatia eta enpatia historikoa erabiliz aldaketa-jarraikortasun auziei helduz, gaur egungo euskal gizarte hobeto ezagutzeko.

Azkenik, errealitate hauek hezkuntzarekin duten harremana eta berorri planteatzen dizkioten erronka eta aukerak izango ditugu aztergai. Aipaturiko gaiak jorratzeko asmoz, Eusko Jaurlaritzako zein kulturartekotasunaren eraikuntzan ari diren elkarrekin partaidetza izango dugu gure ahaleginean laguntzeko. Ikasturte honetan beharrezkoa izango entzute eta partaidetza aktiboa, irakurketa eta hausnarketa burutzea. Horretaz gain UNESCOk (2015) proposaturiko bideari jarraituz esku hartze proposamen bat egitea beharrezkoa izango da.

Gaitasun orokorrak

1. Irakaskuntza proiektua aurrera eramateko jakintzagai ezberdinetan eskuratutako gaitasunak barneratzeko gai izatea, kultura anitzeko testuinguruetan ikaskuntza-irakaskuntza prozesuen konplexutasuna ulertzeko, gizarte-erakunde publikoetan eta pribatuetan duten inplikazio praktikoei dagokienez.
2. Ikastetxeko hezkuntza-testuingurua aztertzea inguru sozial kultur anitzaren berezitasunei erreparatuz.
3. Kultura arteko esku-hartzeko proiektuak dinamizatzea, eskola-elkarteari eta ingurumen sozialari erreparatuz.
4. Ikasketa-guneak diseinatzea, kudeatzea eta arautzea, aniztasun-testuinguruetan, hiritartasun aktibo baterako hezkuntza demokratikoaren balioak osatzen eta eusten dituzten berdintasun-



generoari, zuzentasunari eta giza eskubideekiko errespetuari erantzunez.

Gaitasun espezifikokoak

- Migratzaileek garaturiko nortasun kolektibo ezberdinak ezagutu.
- Bidaia hasteko faktoreak ulertu.
- Talka-Kulturala, kultur-nekea eta Ulisesen Sindromea ikasi eta hauek gainditzeko elkarrean abantailak ikasi egin behar honetan euskal diasporaren kasu eta irakaspenei bereziki erreparatu.
- Komunitate kultural desberdinen ezagutza lortu eta euren elkarrekin harremanetan sartu
- Kultur aniztasuna kudeatzeko eta kulturartekotasuna bultzatzeko agenteen lana eta proposamenak ezagutu eta eztabaida handiko gaiak identifikatu.

1. PROIEKTU ESPEZIFIKOEN KUDEAKETA: LANAREN DESKRIBAPENA

1.1. Deskribapen laburra: Eskola eta auzoa, kulturarteko espazioa

Ikasgai honetan, ikuspegi komunitarioa eskolaren inguruan landuko da, kulturartekotasuna bidea egite aldera egon daitezkeen beharrak identifikatu eta eskolari laguntzera bideratua egongo den esku-hartze xume bat aurrera eramango da. Ondoren, egindako lanaren inguruko ebaluazioa eta hausnarketa gauzatuko da. Honetarako, lau taldeetan, Gasteizko eskola batean, eta honi loturiko auzoa eta eskola komunitatea batean, egingo da lanak. Bertan kultur aniztasuna dagoeneta kulturartekotasunerako espazioak/uneak dauden behatuko da. Ondoren, kulturartekotasuna sustatzeko lagungarria izan daitezkeen esku hartze ala ikas-egoera bat proposatu eta burutu beharko da tutorearekin batera esleituta dagoen eskola/auzo batean. Talde bakoitzari tutorea esleituko zaio egin beharreko lanaren nondik norakoak argitzeko. Hala ere, lana autonomoa da.

1.2. Egin beharreko lana

Eskola/auzoa aukeratu ondoren, kontaktua burutu eta bertara bisitak egin beharko dira bertako errealitatea gertutik ezagutzeko. Ondoren, beharren identifikazio bat burutuko da. Beharren identifikaziotik abiatuak ikas egoera bat planteatu, burutu eta ebaluatu egin beharko da.

Oso interesgarria izan daiteke adin eta genero faktoreak behatzea.

Lan honek sistematikotasuna behar du. Behatutakoa jaso egin behar da euskarri egokiak erabiliz. Ondo berezitu behar dira:

- Lehen mailako iturriak: ikasleek beraiek ikerketan zehar lortutakoak (behaketak, elkarrizketak, argazkiak...).
- Bigarren mailako iturriak: aditu zein erakundeek egindako txostenak, egunkarietako informazioa, datu estatistikoak...

Metodo zientifikoarekin dugun konpromezuari jarraituz, ebidentzien gainean burutuko arestian aipaturiko urratsak gauzatuko ditugu. Une oro, egindako ikerketa ibilbidearen EBIDENTZIAK jaso beharko dira emango zaizkizuen behaketa tresnen bidez dira Alegia, eskola-auzoaren kartografia egin



beharko da modu sistematikoan eta ikerketa metodologia bati jarraituz (datu subjektiboak eta objektiboak bereiziz etab.). Bildutako lehen mailako datuen analisi sistematizatu bategin beharko da emaitzak era bateratu batean aurkeztuz, horretarako irizpide zientifikoak erabiliaz.

Bigarren fasean, ikasle taldeak, eskola eta auzo behaketaren emaitza eta ondorioetan oinarriturik, eskola komunitateari zuzendutako esku hartzea egingo du. Hau egin daiteke auzoko elkarte, eskola, talde batekin koordinaturik edo taldea bere kabuz. Lan hau **ikas egoera diseinu bat izango du** helburu.

Bukaeran, egindako proiektuaren ahozko defentsa egin beharko da. Bertan, auzoaren-eskolaren aurkezpen laburra egitea eskatzen da, testuingurua ezagutzeko, eskola komunitatean kulturartekotasuna sustatzeko identifikatutako beharrak azalduz. Ondoren, auzoan egindako esku hartzea azalduko da eta prozesu guztiari buruzko hausnarketa egin: bizi izandako esperientzia, ikasitakoa, ekarpena, eta abar. Epai-mahaiaren galderei erantzun beharko zaie era indibidualean, honek taldearen partaide bakoitzaren notan eragina duelarik.

- Lan honen helburua ikasgai bakoitzean landutako edukien arteko loturak ezartzea da, diziplina artekotasuna eta zeharkakotasuna kontuan izanik, eta beti ere kulturartekotasuna ardatza izanik.

1.3. Proiektuari eskainitako arduraldia:

Ikasgai honen berezitasuna landa-lana da. Beraz, astero ordu t'erdiko klase teoriko praktikoak egongo dira. Beste bi orduak auzoan landa lana egiteko kontabilizatzen dira.

1.4. Ikasgaiaren kronograma:

Ikastaroa hasterakoan emango zaizue kronograma zehatza. [Dena den, hemen aurkezten zaizkizue kontutan hartu beharreko data garrantzitsuak:](#)

Ataza	Data edo epemuga
Aurkezpena	Irailaren 13
Gida irakurri eta talde fitxa igo	Irailaren 17
Tutoreen esleipena	Irailaren 20
Eskolarekin bilera	Irailak 23ko astean
Emategia: tutoreari entregatzeko egindako elkarrizketaren inguruan	Irailak 25
Eskola eta auzoa bisitatu eta ikerketa egiten hasi	Irailetik aurrera (asteen 2 orduz)
Eskola eta auzo behaketaren ondorioak eta esku-hartzearen proposamen garatua	Azaroak 10
Tutorearen feedback-a	Azaroak 12ko astea



Esku-hartzea	Azaroak 26 baino lehen (18ko astean gomendatzen da)
Lanaren defentsa	Abenduaren 13 eta 20an Bukaerako ebaluazioko ikasleak: 2025ko urtarrilaren 7 (1. Deialdia)

1.5. Ikasgaiaren Ebaluazioa:

Lan kooperatibo honen ebaluazioa bi bloke handitan egiten da, alde batetik, prozesuaren ebaluazioa egingo da tutorearen partetik, zeinak ikasgaiaren %40-a suposatuko duen; eta bestalde, lanaren defentsa, zeinak 60%-ko balioa izango duen.

1. ETENGABEKO EBALUAZIOARI UKO EGITEKO ESKUBIDEA ETA ARAUDIA

[Ebaluazio araudi berriaren](#) arabera, ikasle guztiek eskubidea dute euren kalifikazioa lortzeko etengabeko ebaluazioaren bidez. Eskubide horri uko egin nahi badio eta azken ebaluazioaren bidez ebaluatua izan, idatziz eskatu beharko dio dagokion irakasleari. Horretarako, eskubide hori baliatzeko ikasleak, gehienez, 9. asterako, etengabeko ebaluazioari uko egiten diola jasotzen duen [idatzi bat](#) aurkeztu beharko dio irakasgaiaren irakasleari. Horrek esan nahi du etengabeko ebaluazioari uko egin nahi dion edozein pertsonak, 2024KO AZAROAREN 4-8KO ASTEA BAINO LEHEN, eskatu behar duela azken ebaluazioaren bitartez ebaluatua izatea.



BIBLIOGRAFIA

- Coronel Gastiain, U., Palacios Agundez, I., Perales-Fernández-de-Gamboa, A., Rico, A. 2024. Kulturarteko hezkuntza eta Garapen Iraunkorreko Helburuetarantz bidea eginez *World Café*-aren bidez: eskola baten esku-hartzea. *UZTARO-Revista de Humanidades y Ciencias Sociales*, 130 zenbakia.
- Perales-Fernández-de-Gamboa, A., Arregi Orue, J.I., Escalante Mateos, N., Palacios Agundez, I. 2024. La formación docente con perspectiva intercultural a través de la asignatura Gestión de Proyectos Específicos: Construyendo puentes entre Universidad, escuela y comunidad. *Rompiendo Barreras: Lenguaje, Cultura y Tecnología en la Educación Inclusiva*. Tirant lo Blanch.

***Ikasgai bakoitzak, bibliografia zehatza eta oparoa duenez gero, komeni zaizue ikasgai gida bakoitzera jotzea.**

